

GALDERA TEORIKOAK.

Inguratu zirkulu batez zuzentzat jotzen duzun erantzuna; okertzen bazara, gurutze batez ezabatu eta, beharrezkotzat jotzen baduzu, markatu berriz beste erantzun bat.

1.- Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren Aukera-berdintasunaren Plan Estrategikoari buruzko 17. artikuluan, Gobernuak, Estatuaren eskumenekoak diren gaietan, Aukera-berdintasunaren Plan Estrategiko bat onetsiko du:

- a).- 2 urtean behin.
- b).- Legealdi bakoitzean.
- c).- 4 urtean behin.
- d).- Aldizkakotasunez.

2.- Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren Berdintasuna eta publizitateari buruzko 41. artikuluan ezartzen den moduan, Lege horren arabera bereizkeriazko jokabidea eragiten duen publizitatea joko da:

- a).- Ez-egokitzat.
- b).- Baztertzailetzat.
- c).- Ez-zilegitzat.
- d).- Sexista.

3.-3/2007 Lege Organikoak Berdintasun-planak egin eta aplikatzeari buruzko 45. artikuluan ezartzen den moduan, emakumeen eta gizonen artean lan-izaerako edozein bereizkeria-mota saihesteko neurriak hartzea dagokio:

- a).- Soilik 250 langiletik gorako enpresei.
- b).- Soilik 50 langiletik gorako enpresei.
- c).- Enpresa guztiei.
- d).- Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

4.- Berdintasun planak eta haien erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuaren arabera, Zer eduki izan behar dute berdintasun planek, besteak beste?:

a).- Enpresaren egoera-diagnostikoari buruzko txostena, edo, 2.6 artikuluan aipatzen den kasuan, taldeko enpresa bakoitzari buruzko diagnostikoaren txostena. / Ordainsariei buruzko auditoretzaren emaitzak, bai eta horren indarraldia eta aldizkakotasuna ere, urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretuarekin bat (emakumeen eta gizonen ordainsarien berdintasunari buruzkoa). / Neurri zehatzak, horiek gauzatzeko epea eta lehentasunak deskribatzea, bai eta neurri bakoitzaren bilakaera zehazteko adierazleak diseinatzea ere.

b).- Neurriak eta helburuak ezartzeko eta horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko behar diren bitartekoak eta baliabideak –giza baliabideak zein materialak– identifikatzea. / Egutegia, berdintasun planaren neurriak ezartzeko eta horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarduketena. / Garatu beharreko ekintza bakoitzaren aurrekontu xahatua /Jarraipena, ebaluazioa eta aldizkako berrikuspena egiteko sistema.

c).- Berdintasun planaren helburu kuantitatiboak soilik definitzea / Berdintasun planen jarraipena, ebaluazioa eta aldizkako berrikuspena egiteaz arduratzen den batzorde edo organo parekidearen osaera eta funtzionamendua. / Aldaketak egiteko prozedura, bai eta aplikazioan, jarraipenean, ebaluazioan edo berrikuspenean sor daitezkeen desadostasunak konpontzeko prozedura ere, legezko edo konbentziozko araudiak hori egokitzea behartzen ez duen bitartean..

d).- Aurreko guztiek dute berdintasun-planek izan behar ez duten edukiren bat.

5.- Berdintasun planak eta haien erregistroa arautzen dituen urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuaren arabera, diagnostikoak gutxienez gai hauek aipatuko ditu:

a).- Erantzunkidetasuna, bizitza pertsonaleko, familiarreko eta laneko eskubideei dagokienez eta Emakumeen ordezkariak neurritzeko gorakoa.

b).- Ordainsariak eta Sexu-jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari heltzea.

c).- Hautapen eta kontratazio prozesua eta lanbide sustapena.

d).- Lanbide-sailkapena eta Lan baldintzak, barne jasotzen dela emakumeen eta gizonen soldatei buruzko auditoretza, urriaren 13ko 903/2020 Errege Dekretuarekin bat (emakumeen eta gizonen ordainsarien berdintasunari buruzkoa).

6.- Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 4. artikulua araberan, hauetako zein EZ da jardute-printzipioa?

- a).- Emakumeen ahalduntzea. Haien autonomia eta parte-hartzea sustatzea, justizia sozialean aurrera egiteko eta berdintasuna lortzeko estrategia gisa.
- b).- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa zeharkakotasunez ezartzea politika publiko guztien diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan.
- c).- Berdintasun politikak sustatzea Nafarroako Foru Komunitatean.
- d).- Emakumeen eskubide sexual eta erreproduktiboak bermatzea.

7.-Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean Berdintasunerako politiken arloko goi mailako eskumenari buruzko 7. artikulua araberan, honako eginkizun hauetako bat EZ dagokio Lehendakaritza Departamentuaren titularrari:

- a).- Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluko burua izatea.
- b).- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Nafarroako plan estrategikoa aurkeztea Nafarroako Parlamentuari, hori onetsi dezan.
- c).- Zehatzeko ahala erabiltzea, foru lege honek esleitzen dion moduan.
- d).- Nafarroako Berdintasunerako Institutuko goi-zuzendaritza betetzea.

8.-Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean, Nafarroako toki entitateei buruzko 12. artikulua araberan, berdintasun arloko politiken gaian, honako eginkizun hauetako zein dagokie toki entitateei:

- a).- Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna jarduera guztietan integratzeko beharrezko mekanismoak idaztea.
- b).- Emakume-elkarteak eta talde feministak eratzten laguntzea, eta berdintasunaren eta genero-zeharkakotasunaren politikak diseinatzen, lantzen, garatzen eta ebaluatzen parte har dezaten bultzatzea.
- c).- Emakumeen gabeziak eta beharrak aztertu eta atzematea, foru lege honen helburuak betetzeko kasuko lurralde-eremuan.
- d).- Emakumeen autonomia pertsonala eta ekonomikoa bermatzea, emakumeen enplegua eta haien ahalduntze pertsonala, kolektiboa eta soziala bultzatuz.

9.- Sexu Askatasunaren Berme Osoaren irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak oinarrizko kontzeptu bat hartzen du Estatuak diskriminazioen eta haien eraginaren aurrean dituen betebeharrak deskribatzeko, hauetako bat (ERANTZUN ZUZENA MARKATU):

- a).- Lanaren banaketa sexuaren arabera.
- b).- Ekintza positiboak.
- c).- Mainstreaming edo genero-zeharkakotasuna.
- d).- Interseksionalitatea.

10.-Sexu Askatasunaren Berme Osoaren irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren arabera, delituaren ondoriozko erantzukizun zibilari buruzko zigor-legeen arabera, sexu indarkerien biktimei dagokion kalte-galera material eta moralen kalte-ordainak ekonomikoki ebaluagarria den asebetetzea bermatu behar du, gutxienez, honako kontzeptu hauetan:

- a).-Kalte fisiko nahiz psikologikoa, kalte morala eta duintasuna kaltetzea barne./b) Aukerak galtzea, hezkuntzako, enpleguko, aisiako eta gizarte-prestazioetako aukerak barne./c) Kalte materialak eta diru-sarrerak galtzea, lortu gabeko irabaziak barne. /d) Kalte soziala, hau da, bizi-proiektuari eginiko kaltea./e) Tratamendu terapeutikoa, soziala eta sexu- eta ugalketa-osasunekoa.
- b).- Kalte fisiko nahiz psikologikoa, kalte morala eta duintasuna kaltetzea barne./b) Aukerak galtzea, hezkuntzako, enpleguko eta gizarte-prestazioetako aukerak barne./c) Kalte materialak eta diru-sarrerak galtzea, lortu gabeko irabaziak barne. /d) Kalte soziala, hau da, bizi-proiektuari eginiko kaltea./e) Tratamendu terapeutikoa, soziala eta sexu- eta ugalketa-osasunekoa.
- c).-Kalte fisiko nahiz psikologikoa, kalte morala eta duintasuna, zintzotasuna eta izen ona kaltetzea barne./b) Aukerak galtzea, hezkuntzako, enpleguko eta gizarte-prestazioetako aukerak barne./c) Kalte materialak eta diru-sarrerak galtzea, lortu gabeko irabaziak barne. /d) Kalte soziala, hau da, bizi-proiektuari eginiko kaltea./e) Tratamendu terapeutikoa, soziala eta sexu- eta ugalketa-osasunekoa.
- d).- Kalte fisiko nahiz psikologikoa, kalte morala eta duintasuna kaltetzea barne./b) Oporraldiak galtzea./c) Kalte materialak eta diru-sarrerak galtzea, lortu gabeko irabaziak barne./d) Kalte soziala, hau da, bizi-proiektuari eginiko kaltea./e) Tratamendu terapeutikoa, soziala eta sexu- eta ugalketa-osasunekoa.

11.-Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren Xedeari buruzko 1. artikulua arabera, oso-osoko babesa emateko neurriak ezartzen dira, eta haien xedea da:

a).- halako indarkeria prebenitu, zehatu eta ezabatzea, eta indarkeria horren biktimei babesa ematea indarkeria horren biktima diren emakumeak, haien seme-alabak eta haien tutoretzapean edo zaintzapean dauden adingabeak.

b).- indarkeria horri heltzea, prebenitzea, zehatzea eta desagerraraztea, eta indarkeria horren biktima diren emakumeei, haien seme-alabei eta haien tutoretzapean edo zaintzapean dauden adingabeei laguntza ematea.

c).- indarkeria hori prebenitzea, ulertzea, zehatzea eta desagerraraztea, eta indarkeria horren biktima diren emakumeei, haien seme-alaba adingabeei eta haien tutoretzapean edo zaintzapean dauden adingabeei laguntza ematea.

d).- Horiek guztiak okerrak dira.

12.-Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren printzipio gidariei buruzko 2. artikulua dioen arabera, hauetako zein ez da printzipio gidari bat?

a).- Prebentzioaren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko neurriak indartzea; horretarako botere publikoak tresna eragingarriekin hornituko dira, hezkuntzaren, gizarte-zerbitzuen, osasunaren, publizitatearen eta komunikabideen esparruan.

b).- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eskubide ekonomikoak bermatzea, emakume horien gizarteratzea errazteko helburuarekin.

c).- Emakumeen ahalduntzea sustatzea.

d).- Botere publikoen era guztietako baliabide eta tresnak koordinatzea, ziurtatzeko genero-indarkeriazko egitateen prebentzioa eta, hala denean, egitate horien errudunei ezarri beharreko zehapen egokia.

13.-Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoari eta Gizarte-laguntza osorako eskubidearen gaineko 19. artikuluari dagokionez, diziplina anitzeko arretak EZ du bere baitan hartuko:

a).- Berdintasun-balioetan prebentzio-prestakuntza, beregana daitezen garapen pertsonala eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko trebakuntza.

b).- Laguntza ekonomikoa.

c).- Biktimganako informazioa.

d).- Prestakuntzarako eta laneratzeko babesa.

14.-Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen oinarri diren printzipioei buruzko 6. artikuluan hauxe da “arreta egokia” izeneko printzipioaren azalpena?:

a).- Erakunde publikoek bermatu egingen dute foru lege honetan aurreikusitako neurriak aplikatuko direla inolako diskriminaziorik gabe, hau da, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo beste edozein, jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazional bateko kide izatea, gaitasun ekonomikoa, sexu joera, genero identitatea, adina, osasun egoera, desgaitasuna, egoera zibila, migratzaile estatusa edo egoitzaren egoera administratiboa edozein izanik ere.

b).- Erakundeen erantzunak aitortzen du emakumeen kontrako indarkeria faktore anitzeko arazoa dela eta biktima diren emakumeen beharrei politika publikoaren esparru desberdin askotatik heldu behar zaiela. Horren ondorioz, erakundeen erantzuna integrala izanen da eta instantzien arteko koordinazioa eta lana sustatuko ditu.

c).- erakundeen erantzunak bideak ezarriko ditu biktimak begirunez tratatzen direla eta emakumea ez dela bi aldiz biktima bihurtzen ziurtatzeko; bermatuko da neurriak bideratzen direla biziraun dutenen autonomia eta askatasuna lortzera, eta haien behar nagusiei erantzuten zaiela, biktimen seme-alabenak barne.

d).-emakumeen kontrako indarkeriaren aurreko erantzuna erantzukizun instituzionalaren maila guztietara zabalduko da (prebentzioa, babesa, laguntza, biktimentzako erreparazioa eta justiziaren sustapena) eta xedetzat izanen du bermatzea emakumeen eskubideak egiaz gauzatzea.

15.-Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen 49. artikuluaren arabera, emakumezko langile publikoen eskubideei dagokienez:

a).- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumezko langileek eskubidea izango dute lanorduak murriztu edo berrantolatzeke, beste herri batean lan egiteko, beste lantoki batera aldatzeko, lan harremana eteteko -lanpostua gordeta- eta lan kontratua amaitzeko, Langileen Estatutuan eta aplikatu behar den lan arloko araudian finkatutako moduan.

b).- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumezko langileek eskubidea izango dute lanorduak murriztu edo berrantolatzeke, beste herri batean lan egiteko, beste lantoki batera aldatzeko, lan harremana eteteko -lanpostua gordeta- eta lan kontratua amaitzeko, Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta aplikatu behar den lan arloko araudian finkatutako moduan.

c).- Emakumeen aurkako indarkeriaren egoera batetik biziraun duten emakumezko langileek eskubidea izanen dute lanorduak murriztu edo berrantolatzeke, beste herri batean lan egiteko, beste lantoki batera aldatzeko, lan harremana eteteko -lanpostua gordeta- eta lan kontratua amaitzeko, Langileen Estatutuan eta aplikatu behar den lan arloko araudian finkatutako moduan.

d).- Emakumeen aurkako indarkeriaren egoera batetik biziraun duten emakumezko langileek eskubidea izanen dute bizitza osorako ordaindutako eszedentzia izateko, beste herri batean lan egiteko ostatu hartzeko eskubidearekin, beste lantoki batera aldatzeko, lan harremana eteteko -lanpostua gordeta- eta lan kontratua amaitzeko, Langileen Estatutuan eta aplikatu behar den lan arloko araudian finkatutako moduan.

16.- Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen arabera, hauetako zein EZ da emakumeen kontrako indarkeriatzat hartzen:

- a).- Indarkeria bikotean edo bikote ohian, heterosexuala izan edo homosexuala izan.
- b).- Feminizidioa.
- c).- Emakumeen eta nesken salerosketa.
- d).- Emakumeen genitalen mutilazioa.

17.-Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legearen Ekintza Plana Nafarroan, hainbat helburu estrategiko jasotzen ditu. Markatu zein EZ den Plan horren helburu estrategikoa:

- a).- Gaitasun profesional eta espezializatu handiagoa sortzea prebentzioan eta arretan esku hartzen duten profesionalen kolektiboetan eta indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen kolektiboetan.
- b).- Segurtasuna eta babes osoa hobetzea, soilik indarkeria jasaten duten emakumeen kasuan.
- c).- Genero-berdintasuna politika orokorretan sartzeari sendotzea, emakumeen diskriminazio ezan oinarritutako politika publikoetarantz aurrera egiteko.
- d).-Gaitasun profesional eta espezializatu handiagoa sortzea indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen prebentzioan, arretan eta babesean esku hartzen duten profesionalen kolektiboetan, genero-ikuspegian eta giza eskubideetan oinarritutako esku-hartzeetan aurrera egiteko; esku-hartze horien lan-helburua emakumeen ahalduntze pertsonala izango da, bai eta eremu horietako lanaren aintzatespen eta prestigio profesional handiagoa ere.

18.-Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legearen Ekintza Plana Nafarroan, 4 ardatz estrategiko ezartzen ditu. Adierazi hauetako zein den ardatz horietako bat:

- a).- Balio aldaketa eta baldintzak sortzea emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizimodurako, Lanbide prestakuntza, emakumeen kontrako indarkeriak identifikatu eta haiei heltzeko eta 14/2015 Foru Legeak aurreikusitako arloetan eskumena duten erakundeen arteko koordinazioa.
- b).-Balio aldaketa eta baldintzak sortzea emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizimodurako, Osoko arreta emakumeei eta hain seme-alabei, Lanbide prestakuntza emakumeen kontrako indarkeriak identifikatu eta haiei heltzeko eta 14/2015 Foru Legeak aurreikusitako arloetan eskumena duten erakundeen arteko koordinazioa.
- c).-Balio aldaketa eta baldintzak sortzea emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizimodurako, Osoko arreta emakumeei eta hain seme-alabei, Lanbide prestakuntza emakumeen kontrako indarkeriak identifikatu eta haiei heltzeko eta 1/2004 Foru Legeak aurreikusitako arloetan eskumena duten erakundeen arteko koordinazioa.
- d).- Erantzun guztiak okerrak dira.

19.-LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legearen arabera, administrazio-kontratazioari eta dirulaguntzei dagokienez, 45. artikuluan ezartzen du:

a).- Zilegi izanen da, klausula administratibo partikularren orrietan, kontratuak esleitzeko lehentasuna ezartzea enpresa jakin batzuek aurkeztutako proposamenen alde, enpresa horiek, beren kaudimen teknikoa egiaztatzeke unean, aukera-berdintasuna lortzeko neurriak garatzen badituzte.

b).- Klausula administratibo partikularren orrietan, ezin izanen da ezarri kontratuak esleitzeko lehentasuna aukera-berdintasuna lortzeko neurriak garatzen dituzten enpresek aurkeztutako proposamenei dagokienez.

c).- Zilegi izanen da, klausula administratibo partikularren orrietan, kontratuak esleitzeko lehentasuna ezartzea enpresa jakin batzuek aurkeztutako proposamenen alde, enpresa horiek, beren kaudimen teknikoa egiaztatzeke unean, Berdintasun-plana indarrean badute.

d).- Zilegi izanen da, klausula administratibo partikularren orrietan, kontratuak esleitzeko lehentasuna ezartzea enpresa jakin batzuek aurkeztutako proposamenen alde, enpresa horiek, beren kaudimen teknikoa egiaztatzeke unean, haien Zuzendaritza organo guztietan emakumeen, gizonen eta identitate ez-binarioen ordezkaritza parekidea baldin badute.

20.-Nafarroako Berdintasunerako Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen urriaren 30eko 260/2019 Foru Dekretuaren 1. artikuluaen arabera, Nafarroako Berdintasunerako Institutua honako izaera hau dauka:

a).- Sektoriala.

b).- Zeharkakoa.

c).- Eskumen-izaera.

d).- Denak zuzenak dira.

21.-Nafarroako Berdintasunerako Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen urriaren 30eko 260/2019 Foru Dekretuaren 23. artikuluaen arabera, organismo horren programen atalak EZ du haren eginkizunen artean:

a).- Emakumeek parte har dezaten sustatzea Zainketen Aldeko Tokiko Itunen bitartez.

b).- Enpresetan eta erakundeetan berdintasunerako neurriak eta planak egin eta ezar daitezen sustatzea, horiek egiteko laguntza eta aholkularitza emanez.

c).- Programak, foroak eta prestakuntza eskolak edo tailerrak bultzatzea, neskatoen, nesken eta emakumeen ahalduentze soziala ikusarazteko eta horretan aurrera egiteko, hainbat esparrutan: elkarteetan, politikan, enpresetan.

d).- Etxeko lanen eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko lanen funtzio sozial eta ekonomikoaren aitortza sustatzea, baita ordainsaririk eta aitortza profesionalik gabeko jarduera feminizatuena ere.

22.- Jarduera hauetako zein litzateke sexuagatiko zeharkako diskriminazioa?

a).- Haurdunaldiagatiko kaleratzeak.

b).- Sexu jazarpena eta sexuagatikoak.

c).- Ahalegin fisikoa edo sexu batean nagusi den eta lanpostuan bete beharreko eginkizunekin zuzenean lotuta ez dagoen beste edozein baldintza eskatzea.

d).- interseksionalitate kontuengatik emakume arrazializatuak ez kontratatzea.

23.-Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren zeharkakotasunari buruzko 15. artikuluan ezartzen du:

a).- Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa kontuan hartuko dela botere publiko guztien jardunean, sektore arteko izaerarekin. Botere publikoek erantzukidetasunaren printzipioa borondatez barneratuko dute, euren arau-xedapenak ematean nahiz betetzean, esparru guztietako politika publikoak zehaztu eta horien inguruko aurrekontuak egitean, eta euren jarduera guztiak garatzean.

b).- Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa kontuan hartuko da botere publiko guztien jardunean, zeharkakotasun-izaerarekin. Administrazio publikoek printzipio hori modu aktiboan barneratuko dute, euren arau-xedapenak ematean nahiz betetzean, esparru guztietako politika publikoak zehaztu eta horien inguruko aurrekontuak egitean, eta euren jarduera guztiak garatzean.

c).- Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa kontuan hartuko da botere publiko guztien jardunean, aldi baterako izaerarekin. Administrazio publikoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa barneratuko dute soilik euren arau-xedapenak betetzean, esparru guztietako politika publikoak zehaztu eta euren jarduera guztiak garatzean.

d).- Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa kontuan hartuko da botere publiko guztien jardunean, izaera sektorialarekin. Administrazio publikoek printzipio hori modu aktiboan barneratuko dute, euren arau-xedapenak ematean nahiz betetzean, esparru guztietako politika publikoak zehaztu eta horien inguruko aurrekontuak egitean, eta euren jarduera guztiak garatzean.

24.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 22. artikuluekin bat genero-eraginaren txostena txertatu beharko dute:

a).- Nafarroako Gobernuak onetsi beharreko foru legeen proposamen guztiek, arau xedapen orokorrek eta planek.

b).- Nafarroako Gobernuak onetsi beharreko foru legeen aurreproiektu guztiek, arau xedapen orokorrek eta planek.

c).- Nafarroako Gobernuak onetsi beharreko foru legeen aurreproiektu guztiek eta arau xedapen orokorrek.

d).- Erantzun guztiak okerrak dira.

25.-Nafarroako Gobernuak 2011ko maiatzaren 16an hartutako Erabakia. Genero arrazoiengatiko eraginari buruzko txostena egiteko jarraibideak. Erabakiaren 5. jarraibidean adierazten da:

a).- Arauaren, planaren edo programaren proposamena eta sexuaren araberako eraginari buruzko txostena araua kudeatzen duen organoari bidaliko zaizkio, eta organo horrek, ahalik eta lasterren eta behar izanez gero, dagozkion oharrak egin ahal izango ditu, arauaren, planaren edo programaren edukia indarrean dagoen berdintasun-legeriara egokitzeko egin beharreko aldaketak adierazita.

b).- Arauaren, planaren edo programaren proposamena eta sexuaren araberako eraginari buruzko txostena Nafarroako Berdintasunerako Institutuari bidaliko zaizkio, eta organo horrek, ahalik eta lasterren eta behar izanez gero, dagozkion oharrak egin ahal izango ditu, arauaren, planaren edo programaren edukia indarrean dagoen berdintasun-legeriara egokitzeko egin beharreko aldaketak adierazita.

c).- Arauaren, planaren edo programaren proposamena eta sexuaren araberako eraginari buruzko txostena dagozkion Departamentuaren berdintasun unitateari bidaliko zaizkio, eta organo horrek, ahalik eta lasterren eta behar izanez gero, dagozkion oharrak egin ahal izango ditu, arauaren, planaren edo programaren edukia indarrean dagoen berdintasun-legeriara egokitzeko egin beharreko aldaketak adierazita.

d).- Erantzun guztiak okerrak dira.

26.-“Genero berdintasuna Nafarroako toki entitateetan. Udalaren berdintasun alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea” dokumentuaren arabera, honako eginkizun hauetako zein EZ dagokio aukera-berdintasuneko agenteari?

a).- Lan programak eta jarduketak koordinatu eta kudeatzea.

b).- Ibilbidea ezartzeko prozesua ebaluatzea.

c).- Koordinaziorako bideak ezartzea lanean aritzeko bestelako erakundeekin.

d).- Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak zuzenean artatzea.

27.-“Genero berdintasuna Nafarroako toki entitateetan. Udalaren berdintasun alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea” dokumentuaren arabera, honako eginkizun hauetako zein dagokio aukera-berdintasuneko agenteari?

a).- Legeak toki-erakundeko arloetarako ezartzen dituen genero-eraginari buruzko txostenak egitea.

b).- Toki-erakundearen dokumentazioa zuzentzea, hizkera ez-sexistaren ikuspegitik.

c).- Martxoaren 8an eta azaroaren 25ean udalerrian egiten diren jarduerak antolatzea, koordinatzea, garatzea eta ebaluatzea.

d).- Bere erantzukizun-eremutik, beste interes-talde batzuei aholkuak eta prestakuntza ematea.

28.-“Genero berdintasuna Nafarroako toki entitateetan. Udalaren berdintasun alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea” dokumentuaren arabera, Zer eginkizunak dagozkie politikariei?

- a).- Ekintza batzuk abian jartzeaz arduratzen da.
- b).- Plangintzari buruzko erabakiak hartzea, lan-programen ebaluazioaren emaitzetan oinarrituta.
- c).- Ibilbidea ezartzeko prozesua ebaluatzea, hobetu beharreko arloak identifikatzea eta horiek konpontzeko bideak sortzea.
- d).- Berdintasun Arloak egiten duen lana jakinaraztea eta ikusaraztea.

29.-“Genero berdintasuna Nafarroako toki entitateetan. Udalaren berdintasun alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea” dokumentuak zer egitura proposatzen du?

- a).- esku-hartze esparruak, ildo estrategikoak, programak, helburuak, jarduketak, ebaluazio adierazleak, hobetu beharreko arloak identifikatzea.
- b).- esku-hartze esparruak, programak, helburuak, jarduketak, segimendua egiteko adierazleak.
- c).- jarduketa ardatzak, ildo estrategikoak, programak, helburuak, jarduketak.
- d) Erantzun guztiak okerrak dira.

30.-“Genero berdintasuna Nafarroako toki entitateetan. Udalaren berdintasun alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea” dokumentuaren arabera, Berdintasun arloko urteko dedikazioak esku hartzeko eremu bakoitzean (ordena honetan adierazita: “Tokiko gobernantza”, “Emakumeen aurkako indarkeria”, “Zaintza, erantzukidetasuna eta uztartzea”, “Emakumeen ahalduntzea, haien parte-hartze sozial eta politikoa eta balioen aldaketa” honako portzentajeak ditu:

- a).- %50-%20, %20, %10
- b).- %50, %15, %15, %20
- c).- %50, %20, %15 %15
- d).- Erantzun guztiak okerrak dira.

31.-Nafarroako Berdintasunerako Institutuak enpresak laguntzen ditu emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerantz aurrera egiten, honela:

- a).- Aholkularitzarekin, finantzazioarekin et giza baliabideekin.
- b).-Aholkularitzarekin, tresnekin, metodologiek eta beste erakundeekiko bitartekaritzarekin.
- c).- Berdintasun planak eginez eta giza baliabideekin.
- d).- Aholkularitzarekin, finantzazioarekin, tresnekin eta metodologiek.

32.-Sexu-indarkerietarako Arreta Integraleko Zentroak arreta espezializatua (CAIVS) baliabide espezializatua ekipo profesional bat da eta ekipo horretan EZ dute parte hartzen:

a).- Psikologoak.

b).- Abokatuak.

c).- Sexu- eta ugalketa-osasunean adituak diren osasun langileak.

d).- Gizarte langileak.

33.- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko Nafarroako erakunde arteko III. akordioaren Jarraipen Batzordean batzordekide bat izanen du, besteak beste, honako arlo hauetan eskumena duten Departamentuak eta erakundeak ordezkatzeko:

a).- Justizia, Hezkuntza, Osasun, Gizarteratze eta Babes Sozial, Landa Garapen eta Babes Zibil arloetan eskumena duten Nafarroako Gobernuaren departamentuak.

b).- Familia eta Adingabe, Etxebizitza, Enplegu, Ekonomia eta Auzitegiko Medikuntza arloetan eskumena duten Nafarroako Gobernuaren departamentuak.

c).- Foruzaingoa, Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritza, Polizia Nazionala, Guardia Zibila, Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltza nagusia, BJKN – Nafarroako Auzitegi Nagusia, Biktimen Arretarako Bulegoa.

d).- Justizia, Hezkuntza, Osasun, Gizarteratze eta Babes Sozial, Etxebizitza eta Babes Zibil arloetan eskumena duten Nafarroako Gobernuaren departamentuak.

34.-“2022-2027 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoa Nafarroan”.
Zein dira planaren ildo estrategikoak?

a).- Genero-ikuspegia txertatzea foru-administrazioaren gobernantza-ereduan/ Berdintasunerako balio aldaketarantz aurrera egitea/ Genero-indarkeriarekin bukatzea/ Emakumeen ahalduntze sozial eta politikoa.

b).- Genero-ikuspegia txertatzea foru-administrazioaren eta toki administrazioen gobernantza-ereduan/Genero berdintasuna jasotzen duen eredu sozioekonomiko baterantz aurrera egitea/ Emakumeen aurkako indarkeriari bukaera ematea/ Gizarte zibilaren protagonismoa sustatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraiki eta finkatzeko orduan.

c).- Genero-ikuspegia txertatzea toki administrazioen gobernantza-ereduan / Erantzukidetasunean oinarritutako eredu sozioekonomiko baterantz aurrera egitea / Indarkeriari bukaera ematea bere adierazpen guztietan / Emakumeen aurkako indarkeriari bukaera ematea/ Gizarte zibilaren protagonismoa sustatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraiki eta finkatzeko orduan.

d).- Genero-ikuspegia txertatzea foru-administrazioaren eta toki administrazioen gobernantza-ereduan / Eredu kultural feminista baterantz aurrera egitea/ Emakumeen aurkako indarkeria murriztea/ Gizarte zibilaren protagonismoa sustatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraiki eta finkatzeko orduan.

35.-“2022-2027 Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Plan Estrategikoa Nafarroan” delakoan jasotzen denez, Nafarroan, 2019an, Covid-19 pandemia aurretik, seme-alabak zaintzeko eszedentzien zer portzentaje hartu zuten emakumeek?

a).- %90,38

b).- %95

c).- %78,9

d).- %58,56

36.-“2022-2027 Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Plan Estrategikoa Nafarroan” delakoan jasotzen diren adierazle estrategikoen sisteman Nafarroako genero berdintasunaren indizearen bilakaera neurtzeko, zein dimentsio hartzen dira kontuan?

a).- Enplegua, dirua, indarkeria, boterea.

b).- Enplegua, denboraren erabilerak, ekonomia, sexualitatea, boterea.

c).- Lana, dirua, hezkuntza, denbora, indarkeria.

d).- Enplegua, dirua, ezagutza, denbora, boterea.

37.-Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzaren web orri ofizialean jasotzen denez, hauetako zein EZ da idazkaritzaren eginkizuna?

a).- Genero indarkeriaren aurkako estatu itunaren funtsak betetzea sustatu, betearazi eta haren jarraipena egitea.

b).- Sexu-esplotaziorako emakumeen salerosketari aurre egiteko arau eta neurrien proposamena, baita horien koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa ere.

c).- Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren aplikazioaren eta arau-garapenaren jarraipena egitea.

d).- Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren aplikazioaren eta arau-garapenaren jarraipena egitea.

38.-Organismo hauetatik, zeinek dauka helburu nagusi gisa bi sexuen arteko berdintasun soziala eta emakumeen parte-hartzea ahalbidetzen duten baldintzak sustatzea eta bultzatzea , bizitza politikoan, kulturalan, ekonomikoan eta sozialean, baita emakumeen enplegurako eta autoenplegurako politika aktiboak sustatzea ere genero-berdintasunaren printzipioaren zeharkako aplikazioa sustatu eta garatzea?

a).- Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritza.

b).- Emakumeenganako Indarkeriaren Estatuko Behatokia.

c).- Emakumeen institutua.

d).- Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza.

39.- Istanbulen 2011ko maiatzaren 11n onartu zen Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta horien aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena noiz hartu zuen indarra

- a).- 2015ko abuztuaren 1ean.
- b).- 2014ko urtarrilaren 1ean.
- c).- 2014ko abuztuaren 1ean.
- d).- 2011ko maiatzaren 11n.

40.-Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurriei buruzko abuztuaren 3ko 9/2018 Errege Lege Dekretuaren arabera, emakumeen aurkako indarkeria da:

- a).- Edozeinek emakumeen aurka egiten duen indarkeria emakume izate hutsagatik.
- b).- Emakumeek behin-behinean jasaten duten indarkeria ez-berariazkoa.
- c).- Patriarkatuaren biktima diren gizonak pairatzen dituzten buruko nahasmenduen ondorioa.
- d).- Gizonak emakumeekiko dituzten desberdintasunaren eta botere-harremanen adierazpenik krudelena.

41.- Profesionalentzako gidaliburua. Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren kontra batera jarduteko protokoloa (INAI/NABI 2018) dokumentuak jasotzen duen moduan, hauetatik zein EZ da jarduketak arautu eta orientatu behar dituen printzipio bat:

- a).- Parte-hartzea.
- b).- Aurrekontu-bermea
- c).- Erantzukidetasuna.
- d).- Interseksionalitatea eta diskriminazio anizkoitzari arreta ematea.

42.-Profesionalentzako gidaliburua. Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren kontra batera jarduteko protokoloa (INAI/NABI 2018) delakoaren helburu orokorren artean honako hau dago:

- a).- Prebentzio-, arreta-, babes- eta berreskuratze-sistema guztia jarraibide komun eta homogeen bidez artikulatzen dela bermatzea..
- b).- Emakumeen eta haien seme-alaben errespetua birbiktimizaziorik eza bermatzea.
- c).- Giza eskubideak errespetatu, babestu eta sustatzea.
- d).- Emakumeak ahalduntzea haien bizimodua hobetzeko bide gisa.

43.-Emakumeen aurkako indarkeria, jarduteko eta koordinatzeko tokiko protokoloak prestatzeko gidaren arabera (INAI/NABI 2018), zeintzuk izan beharko liratekeen, besteak beste, emakumeen kontrako indarkeriaren arloan toki entitateen jarduteko modua arautu behar duten printzipioak?

a).- Giza eskubideak errespetatzea, babeste eta sustatzea / Genero ikuspegia eta bitartekaritzaren berariazko sustapena / Diskriminazioaren debekua eta lurralde oreka / Interseksionalitatea eta diskriminazio anizkoitzari arreta ematea.

b).- Giza eskubideak errespetatzea, babeste eta sustatzea / "Arreta egokia" izeneko printzipioa / Genero ikuspegia eta bitartekaritzaren berariazko debekua / Zuzeneko diskriminazio debekatzea / diskriminazio erreflexuari edo transferituari arreta ematea

c).- Giza eskubideak errespetatzea, babeste eta sustatzea / "Arreta egokia" izeneko printzipioa / Genero ikuspegia eta bitartekaritzaren berariazko debekua / Diskriminazioaren debekua eta lurralde oreka / Interseksionalitatea eta diskriminazio anizkoitzari arreta ematea.

d).- Emakumeen eskubideak errespetatzea eta babestea / Erroldatzearen printzipioa / Genero ikuspegia eta bitartekaritzaren berariazko debekua / Diskriminazioaren debekua eta lurralde oreka / Zeharkakotasuna eta diskriminazio anizkoitzari arreta ematea.

44.- Emakumeen aurkako indarkeria, jarduteko eta koordinatzeko tokiko protokoloak prestatzeko gidan (INAI/NABI 2018) honako lan-faseak proposatzen dira?

a).- Prestakuntza - Konpromiso Formala – Protokoloa ontzea – Onestea eta gizarteratzea.

b).- Prestakuntza - Gizarteratzea – Protokoloa ontzea – Onestea.

c).- Diagnostikoa – Entitatearen konpromisoa – Protokoloaren ontze partekatua – Onestea eta gizarteratzea.

d).- Konpromiso formala – Protokoloa ontzea – Inplementazioa – Ebaluatzea adierazleekin.

45.-Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren zuzendari kudeatzaileak emandako urriaren 28ko 63/2022 EBAZPENA, zeinaren bidez "Zainketen aldeko itunak Nafarroan" programa onesten baita, honako indarraldia du:

a).- 2022-2027.

b).- Lau urteko indarraldia, sinaduraren egunetik.

c).- Bi urteko indarraldia, sinaduraren egunetik.

d).- Urtebeteko indarraldia du.

46.- "Zainketen aldeko itunak Nafarroan. Zainketen oinarriak" dokumentuan jasotzen diren printzipioetatik zein dago jasota zaintza eredu berri baterako printzipio gisa?

- a).- Zainketarako eskubidea.
- b).- Ongizatearen etika.
- c).- Erantzukidetasuna.
- d).- Banakakotasunetik konpromiso komunera.

47.- Kontratazio publiko baten lizitazio-fasean berdintasunaren arloan esleitzeko irizpideei eta gauzatzeko baldintza bereziei dagokienez:

- a).- Esleitzeko irizpideak nahitaezkoak dira eta exekuzio baldintza bereziak borondatezkoak.
- b).- Bai esleitzeko irizpideak bai exekuzio baldintza bereziak nahitaezkoak dira.
- c).- Esleitzeko irizpideak borondatezkoak dira eta exekuzio baldintza bereziak nahitaezkoak.
- d).- Bai esleitzeko irizpideak bai exekuzio baldintza bereziak borondatezkoak dira.

48.-"Komunikazio-estrategia barneratzaileei buruzko gida: generoa lehentasun gisa" gidaren arabera, honako aukera hauetatik zein izanen lirateke gomendagarriak maskulinoaren gehiegizko erabilera saihesteko?

- a).- Substantibo generikoak/Perifrasia/Bitan banatzea.
- b).- Azalpen-aposizioak/Determinatzaileak ez erabiltzea/A bildua.
- c).- "Se"rekiko egiturak/Genero markarik gabeko determinatzaileak/Aditzen forma pertsonalak.
- d).- Eraikuntza metonimikoak/Abstraktuak/ X erabiltzea.

49.-"Komunikazio-estrategia barneratzaileei buruzko gida: generoa lehentasun gisa" gidaren arabera, irudiak erabiltzean inplizituki gertatzen den sexismoaren kasuan, honako ekintza hauetatik zein EZ dira gomendagarriak?

- a).- Ilustrazioetan eta argazkietan gizonak eta emakumeak agertzeko maiztasunean parekotasuna bermatzea.
- b).- Emakumeak edo gizonak eremu publiko edo pribatu jakin batzuetan ez egotea eta, beraz, ikusezin izatea saihestea.
- c).- Rol tradizionaletan emakumeen eta gizonen presentzia eta, beraz, ikusgarritasuna sustatzea.
- d).- Konnotazio maskulinoko ikonoen erabilera saihestea eta bi generoak ikusaraziko dituzten ikonoen edo zentzu neutro edo sinbolikoa dutenen erabilera sustatzea.

50.-“2020-2025 Genero Berdintasunerako Europako Estrategiak” delakoaren arabera, Europar Batasuneko estatu kideek 2019ko Genero Berdintasun indizean honako puntuazioa lortu zuten:

- a).- 67,4 100etik.
- b).- 5 100etik.
- c).- 56,1 100etik.
- d).- 72,3 100etik.

51.-Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 12. artikulua araberaz, neurri hauetatik zein EZ dago jasota arreta osorako eskubidean?

- a).- Babesa.
- b).- Harrera.
- c).- Laguntza.
- d).- Errekuperazioa.

52.- Zer urtetan onetsi zen Ultzamako Mankomunitateko II. Berdintasun Plana?

- a).- 2017.
- b).- Oraindik I. Plana indarrean dago.
- c).- 2018.
- d).- 2024.

53.- Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko udalerrien Emakumeen aurkako indarkeriari arreta emateko barne-jarduketako I. protokoloaren arabera, eginkizun hauetatik zein EZ da Barne-jarduketako Protokoloaren Jarraipen Mahaiaren eginkizuna edo zeregina:

- a).- Protokoloan jasotako neurriak abian jarri eta horren aldirian aldiriko segimendua egitea baloratu ahal izateko emakumeen eta haien seme-alaben eskaerei erantzun positiboa emateko balio duen eta laguntza osoa ematera bideratua den.
- b).- Sei hilabete behin jarraipen txostena egitea zer gauzatzen ari den jakiteko, kontu emateko eta hobetze proposamenak egiteko.
- c).- Detekzio goiztiarrerako irizpideak ezartzea, koordinazioa hobetzea eta arrisku handiko kasuen aurrean ardura duten eragileengana berehala bideratzea.
- d).- Protokoloaren arloan eginkizun lanari buruzko informazio adierazgarria (datuak, kanpainak, azterlanak, eta abar) ematea INAI/NABIri, Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioari eta, hala badagokio, beste eragile batzuei, elkarteak eta herritarrak barne.

54.-Emakumeen aurkako indarkeriari arreta emateko barne-jarduketako I. protokoloaren arabera, osasun arloaren barnean, hauetako zein EZ litzateke eginkizun bat?

- a).- Osasun Etxeko erabiltzaileen artean egoten ahal diren emakumeen aurkako indarkeria egoerak detektatzea.
- b).- Emakumeen aurkako indarkeriatik biziraun duten emakumeei laguntza espezializatua eta integrala (soziala, psikologikoa eta hezitzailea) ematea haien oneratzeko prozesuan.
- c).- Haurrengan genero indarkeriaren egoerak detektatzea.
- d).- Biziraun duten biktimen osasun egoeraren segimendua egitea erabat oneratu arte.

55.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako Berdintasun Unitateen Eginkizunak eta Horien Koordinazio Egiturak arautzen dituen martxoaren 20ko 27/2024 Foru Dekretuaren arabera, berdintasun unitateak integraturik egonen dira:

- a).- Idazkaritza tekniko nagusietan.
- b).- Zuzendaritza nagusietan.
- c).- Zuzendariordetza nagusietan.
- d).- Erantzun guztiak okerrak dira.

56.- Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 26. artikulua arabera, honako zerbitzu hauek dira udalerrri guztiek nahitaez bete beharrekoak:

- a).- Argiteri publikoa, hilerria eta hondakinen tratamendua.
- b).- Bide-garbiketa, Gizarte Zerbitzuak eta hilerria.
- c).- Estolderia, bide publikoak zolatzea eta argiteri publikoa.
- d).- Gizarte-premiako egoeren ebaluazioa eta informazioa, eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta ematea.

57.- Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak bere 51. artikuluan ezartzen du toki entitateen egintzak berehala betearaztekoak direla... (markatu erantzun ZUZENA).

- a).- Lege xedapen batek kontrakoa ezartzen ez badu.
- b).- Legearekin bat haren eraginkortasuna eteten ez bada.
- c).- Toki entitateen administrazio egintzak berehala betearaztearen arau orokorraren salbuespenik ez dago.
- d).- a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

58.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 10. artikularekin bat, udaleko biztanleria osatzen dute:

- a).- Udal erroldan inskribaturiko pertsona guztiek.
- b).- Udalerrian bizi diren pertsona guztiek, udal erroldan inskribaturik dauden edo ez.
- c).- Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.
- d).- Eginiko azken hauteskundeetako erroldan agertzen diren pertsonak.

59.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 49. artikularekin bat, mankomunitateen eraketa prozedurari hasiera emateko beharrezko izanen da eraketa horren sustapenean interesatuak dauden Udaletako Osoko Bilkurek horretarako akordioa hartzea, eta akordio horrek beharko du... (markatu erantzun ZUZENA).

- a).- Gehiengo osoa.
- b).- Gehiengo kualifikatua.
- c).- Gehiengo soilak.
- d).- Osoko bilkura osatzen duenen kopuruaren hiru laurdenen gehiengoa.

60.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikularekin bat, udal batean nori dagokio udal ordenantzak onestea? (markatu erantzun ZUZENA).

- a).- Alkateari.
- b).- Udalaren osoko bilkurari.
- c).- Gobernu lokalaren taldeari.
- d).- Ordenantzetan arautzen den gaiaren arabera dagokion udal batzordeari.

61.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 339. artikularekin bat, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzenduriko gora jotzeko errekursoari dagokionez... (markatu erantzun ZUZENA):

- a).- Gora jotzeko helegitea izapidatzen ari den bitartean Administrazio Auzitegiak aipatutako exekuzioa bertan behera uzten ahalko du.
- b).- Gora jotzeko helegitea NAAn jartzeak bertan behera utziko du beti inpugnatutako egintza edo erabakia.
- c).- Gora jotzeko helegitea NAAn jartzeak bertan behera utziko du inpugnatutako egintza edo erabakia, baldin eta hirugarren interesatuak badaude.
- d).- Gora jotzeko helegitea NAAn jartzeak ez du aipatutako exekuzioa bertan behera uzten ahalko.

62.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikularekin bat, jakinarazpen oro honako epean egin behar da (markatu erantzun ZUZENA):

- a).- Hamar eguneko epean, egintza egin eta biharamunetik aurrera.
- b).- Hamar eguneko epean, egintza egin den egunetik aurrera.
- c).- Hamabost eguneko epean, egintza egin eta biharamunetik aurrera.
- d).- Hamabost eguneko epean, egintza egin den egunetik aurrera.

63.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 42. artikularekin bat, jakinarazpena interesatuaren etxean egiten denean, ezinezkoa gertatzen bada inork jakinarazpena hartzea (markatu erantzun ZUZENA):

- a).- Beste behin saiatuko da hurrengo hiru egunetan eta beste ordu batean.
- b).- Jakinarazpena egintzat joko da ondorio guztietarako.
- c).- Jakinarazpena ez da errepikatuko, eta ediktuen bitartez egingen da.
- d).- Jakinarazpena errepikatuko da hurrengo bi egunetako 15:00ak eta gero.

64.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47. artikularen arabera, erabat deusezak diren egintzak dira (markatu erantzun ZUZENA):

- a).- Eskubide subjektiboak eta interes legitimoak mugatzen dituzten egintzak.
- b).- Administrazioak eskumeneko ahalmenak erabiliz ematen dituen egintzak.
- c).- Nahikoa motibazio gabe emandako egintzak.
- d).- Ezinezko edukia dutenak.

65.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearekin bat, administrazio prozeduraren instrukzioa egiten den bitartean egiten diren txostenei dagokienez, horiek izanen dira (markatu erantzun ZUZENA):

- a).- Aukerakoak eta lotesleak.
- b).- Aukerakoak eta ez-lotesleak.
- c).- Aukerakoak eta ez-lotesleak.
- d).- Aukerakoak eta lotesleak.

66.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearekin bat, bertan honako errekurtsio administratibo hauek aipatzen dira (markatu erantzun ZUZENA):

- a).- Aukerako berraztertze errekurtsioa, gora jotzeko errekurtsioa, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsioa.
- b).- Aukerako berraztertze errekurtsioa, gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, eta berrikusteko errekurtsio berezia.
- c).- Aukerako berraztertze errekurtsioa, gora jotzeko errekurtsioa eta berrikusteko errekurtsio berezia.
- d).- Aukerako berraztertze errekurtsioa, gora jotzeko errekurtsioa, berrikusteko errekurtsio berezia eta administrazioarekiko auzi-errekurtsioa.

67.- Nafarroako Eraen Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 71. artikularekin bat, Hobekuntza erreformatzeko ekimena dagokio... (markatu erantzun ZUZENA):

- a).- Nafarroako Parlamentuari.
- b).- Gorte Nagusiei.
- c).- Nafarroako Gobernuari.
- d).- a eta b erantzunak zuzenak dira.

68.- Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren III. Tituluak, besteak beste, honako eskubide hauek aipatzen ditu (markatu erantzun ZUZENA):

- a).- Sarbidea izateko, zuzenketa egiteko eta kentzeko.
- b).- Sarbidea izateko, zuzenketa egiteko eta kontra egiteko.
- c).- Sarbidea izateko, kentzeko eta kontra egiteko.
- d).- Zuzenketa egiteko, kentzeko eta kontra egiteko.

69.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea. IV. Titulua, Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren finantzaketa, 50. artikulua dio Oinarrizko gizarte zerbitzuen eta ematen dituzten programen finantzaketa bere gain hartuko dutela (markatu erantzun ZUZENA):

- a).- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak.
- b).- Nafarroako toki entitateek.
- c).- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako toki entitateek.
- d).- Europako funtsek.

70.-Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea. V. Titulua, Kontsulta eta partaidetza organoak, 57. artikulua 2. puntuan dio Hauexek izanen direla Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluaren eginkizunak (markatu erantzun ZUZENA):

- a).- Gizarte zerbitzuen sistema hobetzeko proposamenak, gomendioak eta iradokizunak egitea.
- b).- Kalitatea eta hiritarren ongizatea hobetzeko proposamenak, gomendioak eta iradokizunak egitea.
- c).- Proposamena, gomendioak eta iradokizunak egitea gizarte zerbitzuen entitate publikoei.
- d).- Gizarte zerbitzuen arloko lege markoa aldatzeko eragitea.

71.-Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea. VII. Titulua, Ekimen pribatua. II. Kapitula, Baimena eta Erregistroa. Baimen administratibo motei buruzko 70. artikuluan dio zenbait baimen administratibo daudela, besteak beste (markatu erantzun ZUZENA):

- a).- Izaera desberdinetako zerbitzuen funtzionamendurako baimena haien eginkizunak eta helburuak errespetatuz.
- b).- Gizarte zerbitzuak non eman behar diren, zentro horien funtsezko aldaketarako baimena.
- c).- Izaera iraunkorreko salbuespeneko egoeretako baimenak.
- d).- Zerbitzuak berriz irekitzeko, aldi baterako bertan behera uzteko eta bitartekoak berriz esleitzeko baimenak.

72.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea. VIII. Titulua, Gizarte zerbitzuen kalitatea, Kalitate planari buruzko 82. artikulua dio plan horren indarraldia dela (markatu erantzun ZUZENA):

- a).- 5 urtekoa.
- b).- 3 urtekoa.
- c).- 4 urtekoa.
- d).- 2 urtekoa.

73.- Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 13. artikulua (1. atala) edukiarekin bat, edozein herritarrek erabiltzen ahalko ditu eskubide hauek foru lege horretan aurreikusitakoarekin bat. Markatu behar bezala jasota EZ dagoena.

- a).- Foru lege honetan ezarritako betebeharrak betez, herritarren eskura utzitako informazio publikoa eskuratzea.
- b).- Administrazio Publikoen esku dagoen informazio publikoa lortzea, aldez aurretik eskaera eginda, hartarako deklaratu interes zehatza eta zilegi duela.
- c).- Informazioa bilatzeko laguntza jasotzea.
- d).- Eskatzen duen informazioa jasotzea, foru lege honek ezarritako gehieneko epeetan.

74.- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu BATEGINA onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 1. artikuluarekin bat, Estatutu hau Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileriari aplikatu zaio; hauexei (markatu erantzun ZUZENA):

- a).- Foru Komunitateko Administrazioekoei, Nafarroako toki entitatekoei eta haiek sorturiko enpresakoei.
- b).- Foru Komunitateko Administrazioekoei, udalekoei, kontzejukoei eta mankomunitatekoei.
- c).- Foru Komunitateko Administrazioekoei, Nafarroako toki entitatekoei eta Foru Komunitateko Administrazioaren edo Nafarroako Toki Entitateen menpeko erakunde publikoetakoei.
- d).- Foru Komunitateko Administrazioekoei, Nafarroako toki entitatekoei eta Foru Komunitateko Administrazioaren edo Nafarroako Toki Entitateen menpeko erakunde publiko eta pribatuetakoei.

75.- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 3. artikuluarekin bat, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileria hauexek osatuko dute (markatu erantzun ZUZENA):

- a).-) Funtzionario publikoek, langile lan-kontratudunek eta behin-behineko langileek.
- b).- Funtzionario publikoek eta langile lan-kontratudunek, lan-araubidekoak izan administrazio-araubidekoak izan.
- c).- Funtzionario publikoek eta langile lan-kontratudunek, lan-araubidekoak izan administrazio-araubidekoak izan, eta bitarteko langileek.
- d).- Funtzionario publikoek, kontratatutako langileek eta Nafarroako Administrazio Publikoetako batekin indarrean dagoen kontratu-harremana duten beren konturako langileek.

ERRESERBAKO GALDERAK

1.- Zer fase proposatzen ditu Nafarroako berdintasunerako Institutuak enpresek berdintasunerantz arrera egiteko?

a).- Negoziazio-batzordea sortzea / Egoeraren analisia egitea diagnostiko zehatzaren bitartez / Berdintasun Plana diseinatzea ildo estrategiko, programa, helburu, neurri eta ekintzekin / Plana Hitzarmen Kolektiboen, Lan Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroan erregistratzea ofizial bihurtzeko / Plana ezartzea ebaluatzeko beharrik gabe.

b).- Egoeraren analisia egitea diagnostiko zehatzaren bitartez / Berdintasun Plana diseinatzea helburu, ekintza, arduradun eta baliabideekin / Plana Hitzarmen Kolektiboen, Lan Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroan erregistratzea ofizial bihurtzeko /

c).- Negoziazio-batzordea sortzea / Berdintasun Plana diseinatzea ildo estrategiko, programa, helburu, ekintzekin eta adierazleekin / Plana Hitzarmen Kolektiboen, Lan Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroan erregistratzea ofizial bihurtzeko / Plana ezartzea eta haren emaitzak monitorizatzea Berdintasun zerbitzuaren laguntzarekin.

d).- Negoziazio-batzordea sortzea / Egoeraren analisia egitea diagnostiko zehatzaren bitartez / Berdintasun Plana diseinatzea helburu, ekintza, arduradun eta baliabideekin / Plana Hitzarmen Kolektiboen, Lan Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroan erregistratzea ofizial bihurtzeko / Plana ezartzea eta haren emaitzak monitorizatzea Aholkularitza zerbitzuaren laguntzarekin.

2.- “2020-2025 Genero Berdintasunerako Europako Estrategiak” delakoaren funtsezko helburuen artean, honako hauek daude:

a).- Genero-indarkeria murriztea, genero-estereotipoak iraunaraztea, lan-merkatuan genero-arrakalak murriztea, ekonomiaren sektore guztietan berdintasunean parte hartzea lortzea, gizonen eta emakumeen soldata-arrakalari heltzea, laguntza-erantzukizunetan genero-arrakala murriztea eta erabakiak hartzean eta jarduera politikoan emakumeen eta gizonen arteko oreka lortzea.

b).- Genero-indarkeriari amaiera ematea, genero-estereotipoei aurre egitea, genero-arrakalak lan-merkatuan mantentzea, emakumeek ekonomiaren sektore guztietan parte har dezaten lortzea, gizonen eta emakumeen arteko soldata- eta pentsio-arrakala ezabatzea, laguntza-erantzukizunetan genero-arrakala murriztea eta erabakiak hartzerakoan emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna lortzea.

c).- Indarkeria guztiak gutxitzea, genero- eta arraza-estereotipoei aurre egitea, genero-arrakalak betetzea lan-merkatuan, emakumeek ekonomiaren sektore guztietan duten partaidetza handitzea, gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakalari eta denboraren erabilerari heltzea, zaintza-lanetan genero-arrakala murriztea eta jarduera politikoan emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna lortzea.

d).- Genero-indarkeriari amaiera ematea, genero-estereotipoei aurre egitea, lan-merkatuan genero-arrakalak betetzea, ekonomiaren sektore guztietan berdintasunean parte hartzea lortzea, gizonen eta emakumeen arteko soldata- eta pentsio-arrakalari heltzea, laguntza-erantzukizunetan genero-arrakala murriztea eta erabakiak hartzerakoan eta jarduera politikoan emakumeen eta gizonen arteko oreka lortzea.

3.-Haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren ondorioetarako, indarkeria da:

a).- “Adingabeei beren eskubideak eta ongizatea kentzen dien ekintza, ez-egite edo tratu zabar oro, haien garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo oztopatzen diena, edozein dela ere egiteko modua eta bitartekoa, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egindakoa barne, bereziki genero indarkeria eta indarkeria digitala”.

b).- “Adingabeei beren eskubideak eta ongizatea kentzen dien ekintza, ez-egite edo tratu zabar oro, haien garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo oztopatzen diena, edozein dela ere egiteko modua eta bitartekoa, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egindakoa barne, bereziki indarkeria digitala”.

c).- “Adingabeei beren eskubideak eta ongizatea kentzen dien ekintza edo tratu zabar oro, haien garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo oztopatzen diena, edozein dela ere egiteko modua eta bitartekoa, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egindakoa barne, bereziki indarkeria digitala”.

d).- “Adingabeei beren eskubideak eta ongizatea kentzen dien ekintza, ez-egite edo tratu txar oro, haien garapen fisiko, psikiko edo sozial ordenatua mehatxatzen edo oztopatzen diena, edozein dela ere egiteko modua eta bitartekoa, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egindakoa barne, bereziki indarkeria digitala”.

4.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzen 17ko 5/2018 Foru Legearen 21. artikuluaren edukiarekin bat, Nafarroako Administrazio Publikoek, beren eskumen eta eginkizunen esparruan, honakoak emanen dituzte argitara:

a).- Administrazioak onetsitako arauak –eskura egonen dira jatorrizko formatuko bertsioak eta, aldatu diren arauen kasuan, bertsio bateratuak– eta arauen aplikazioaren ebaluazioari buruzko datuak.

b).- Zuzentarauak, jarraibideak, zirkularrak eta egindako kontsultei emandako erantzunak (anonimotasuna babestuta), arauen interpretazioan eta aplikazioan eragin berezia dutenak.

c).- Kontsulta publikoak, foru legeen aurreproiektuak eta erregelamenduen proiektuak egin aurretik planteatutakoak.

d).- Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

5.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat, egintza bat deusez edo deuseztagarri izateak (markatu erantzun ZUZENA):

a).- Prozedurako ondorengoak ere deusez edo deuseztagarri izatea dakar, aurrekoarekin zerikusirik ez badute ere.

b).- Ez dakar prozedurako ondorengoak ere deusez edo deuseztagarri izatea, aurrekoarekin zerikusirik ez badute.

c).- Ez dakar prozedurako ondorengoak ere deusez edo deuseztagarri izatea, lehenengoarekin zerikusirik ez badute.

d).- Egintza bat zati batean deusez edo deuseztagarri izateak harekin zerikusirik ez duten zatiak ere deusez edo deuseztagarri izatea dakar.

6.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 52. artikulua arabera (markatu erantzun ZUZENA):

a).- Administrazioak egintza deuseztagarriak baliozkotzen ahalko ditu, dituzten akatsak zuzenduz.

b).- Administrazioak ezin izanen du egintza deuseztagarriak baliozkotu, dituzten akatsak zuzenduz.

c).- Administrazioak beti baliozkotzen ahalko du erabat deusezak diren egintzak.

d).- Administrazioak erabat deusezak diren egintzak baliozkotzen ahal ditu soilik hierarkian gorago dagoen organoak horretarako emandako baimena jasotzen duenean.